

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, tokiko gobernu batzarrak, 2024ko uztailaren 18an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko Udalaren eta Oñatiko jai nagusien antolakuntzan parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteekin sinatu nahi den hitzarmen-eredua eta dirulaguntza zuzenak eta izendunak berrestea.**

Alkate-udalburuaren 2024ko uztailaren 11ko proposamenak honela dio:

2024ko uztailak 8ko, astelehena, dataz egindako Kultura Batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, kultura batzordeko idazkariak eta kultur zuzendariak (German Meabebasterretxea Arregik jaunak), ziurtatzen duenez:

“1.Gaia: *Oñatiko Udalaren eta Oñatiko jai nagusien antolakuntzan parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteekin sinatu beharreko hitzarmen eredua eta dirulaguntza zuzenak eta izendunak onartzea.*

*Jarraian zerrendatzen da **gaiarekin loturiko gertakariak:***

2024ko San Migel eta Errosarixo jai nagusiak antolatzeko herritarrekin ordura arte emandako pausuak:

2024ko ekainak 18ko, asteartea, dataz, herriko jaien antolakuntzan parte hartu nahi duten herritarrekin bilera irekia egin zen. Bileran honako gaiak landu ziren:

1. Herritarren aurkezpena. Kultura Saileko arduradunen aurkezpena.
2. Jai egitarauaren hezurdura aurkeztea: egutegia, plangintza eta udalak antolatu nahi dituen ekintzen aurreikuspena.
3. Herritarren jarduera kulturalen proposamenak.
4. Herritarren jarduerak gauzatzeko jaietako Udal dirulaguntzak eta beharrezko baimenak: prozedimenduaren azalpena.
5. Galde/ Erreguak.

2024ko uztailak 8an, astelehena, egindako kultura Batzordean, besteak beste, honakoaz informatu zen:

2024ko Herriko jai nagusien antolakuntzan, Udalarekin elkarlanean, parte hartzen duten elkarte bakoitzarekin sinatu beharreko hitzarmen eredu-proposamena aurkeztea.

Gaiarekin loturiko erabaki proposamena:

Gaia aztertu ondoren, honako **erabaki proposamena** aurkezten du kultura batzordeak:

.- Udal kontu-hartzailearen eta idazkariaren irizpenari jarraiki, elkarlan mota honek dituen ezaugarriengatik lankidetzaren hitzarmen batean jaso beharko dira elkarlanaren helburuak eta alde bakoitzaren konpromisoak. Lankidetzaren hitzarmen horrek Oñatiko Udalaren tokiko gobernu batzordearen onospena jaso beharko du, legeak hala aginduta.

Horrenbestez, 2024ko Oñatiko jai nagusiak elkarlanean aurrera eramateko:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalaren eta Oñatiko jaien antolakuntzan parte hartuko duten elkarten arteko "hitzarmen- eredu" (ikus hitzarmen-eredua espedienteari atxikitua) eta 2024 urteko udal aurrekontuetan jasota dagoen onuradun bakoitzari zuzenduriko dirulaguntza zuzen eta izendunen onarpena" berrestea proposatzen da.

Bigarrenkoa.-**Jarraian zerrendatzen da, onuradun bakoitzari egin beharreko ordainketa, kontu saila eta bere lotespen maila**

Onuraduna	Laguntzaren zenbaterikoa	Dirulaguntzaren deskribapena	Kontu saila eta bere lotespen maila
Sagardozale Elkartea	6000	Oñatiko Sagardo dastaketa antolatzea	0800.481.338.01.02 5768 2024
Oñatiz Dantza Taldea	10500	Haurren eguna, dantzari txikien eguna antolatzea	0800.481.338.02.02 5769 2024
Pago Uso Elkartea (Plater Tiraketa)	530	Jaietako Plater tiraketa antolatzea	0800.481.338.03.02 5770 2024
Txinparta Bertso Eskolia	600	Balkoitik-balkoirako bertso saioa antolatzea	0800.481.338.04.02 5771 2024
Txosna Batzordea	16500	Txosnetako Jai egitaraua definitu eta gauzatzea	0800.481.338.05.02 5772 2024
Herri Kirol Taldea	4000	Jaietako herri kirol emanaldiak antolatzea	0800.481.338.06.02 5773 2024
Mus txapelketa	1210	Mus txapelketa antolatzea	0800.481.338.07.02 5774 2024
Artzain Txakur Txapelketa Elkartea	11400	Artzain Txakur Txapelketaren antolatzea	0800.481.338.08.02 5775 2024
Kultze Baltz Elkartea	825	Herriko Bolajoku Txapelketa	0800.481.338.09.02 5776 2024
Oñatiko Margo Taldea	2629	Oñatiko Jaietako margo lehiaketa antolatzea	0800.481.338.10.02 5777 2024
Ilunpetan Elkartea	600	Jaietako begi bistan argazki erakusketa antolatzea	0800.481.338.11.02 5778 2024
Kanpanatxo kultur Taldea	3200	Erraldioen konpartsa antolatzea	0800.481.338.12.02 5779 2025
Guztira jaietako dirulaguntza	57994		

Onuradun bakoitzarekin sinatuko den hitzarmenaren ezaugarri nagusiak (ikus hitzarmen-eredu dokumentua):

.- Hitzarmen bakoitzaren dirulaguntzarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2024 urteko Udal aurrekontuetan.

.- Hitzarmen bakoitzaren indarraldia: Urtebetekoa izango da (2024).

.- Hitzarmen bakoitzaren zuriaketa epea: Beranduenez, 2024ko azaroak 29, osteguna.

.- Hitzarmen bakoitzaren ordainketa modua:

✓ Akordioaren onarpenean (%100).

Onuradunak: "Sagardozaleak/ Oñatz Dantza Taldea / Pago Uso Elkartea /Txinparta Bertso Eskolia / Herriko Kirol Taldea /Mus Txapelketako antolatzailea / Oñatiko Nazioarteko Artzai Txakur txapelketen antolatzaile Elkartea / Kurtzebaltz Elkartea / OMT / Ilunpetan argazki taldea/ Kanpantxo Kultur Elkartea/ Txosna Batzordea "

Batzordea jakinaren gainean geratu da: 2024ko jai nagusien antolakuntzan parte hartuko duten elkarte bakoitzarekin sinatu behar den lankidetzak hitzarmen-eredua eta onuradun bakoitzak jasoko duen dirulaguntza zerrenda Kultura Batzordean aurkeztu eta onartu da.

Legeria aplikagarria:

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena* ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

"-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio."

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiak adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidagoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1.Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) *Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.*”

30.2 artikulua: “*Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.*”

34.3 artikulua: “*Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Azaldutakoagatik, eta Kultura batzordeak aldeko irizpena eman ondoren; nik, Izaro Elorza Arregui, Alkateak, Tokiko Gobernu Batzordeari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.-Onartzea, hala badagokio, Oñatiko Udala eta Oñatiko Herriko 2024ko jai nagusien antolakuntzan parte hartuko duten irabazi asmorik gabeko elkarte bakoitzarekin sinatuko den “hitzarmen- dokumentu eredia “ eta “ onuradunen zerrenda”:

Onuradunak: “Sagardozaleak/ Oñatz Dantza Taldea / Pago Uso Elkarte /Txinparta Bertso Eskolia / Txosna Batzordea/ Herriko Kirol Taldea /Mus Txapelketako antolatzailea / Oñatiko Nai-

O Ñ A T I K O U D A L A

zoarteko Artzai Txakur txapelketen antolatzaile Elkarteak / Kurtzebaltz Elkarteak / OMT / Ilunpetan argazki taldea/ Kanpantxo Kultur Elkarteak ”.

Bigarrena.-Gastua.

Dirulaguntza hauek guztiak dakarten gastua guztira onartzea (57994€) 2024ko udal aurrekontuan onuradun bakoitzari dagokion diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura; kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean.

Hirugarrena.- Iraupena.

Hitzarmen hauek guztiak urtebeteko (2024) iraupena izango dute, eta hau igarotzean, ondoriorik gabe geratuko dira automatikoki, isilbidezko luzapenik gabe.

Laugarrena.- Ordainketa.

Dirulaguntzen ordainketa modua onartzea: akordioa ornartzen denean: %100.

Bostgarrena.- Likidazioaren aurkeztea.

Gastuen likidazioa aurkezteko epe muga: 2024ko azaroak 29, osteguna, izango da. Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Seigarrena.- Diru laguntza zuzen eta izendun hauek guztiak, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Zazpigarrena.- Kultura departamentuko teknikariak izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hauek behar bezala bete eta garatzeko.

Zortzigarrena.- Ebazpen hau, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturiko du. Jakinarazpena egitza joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpeta argitaratu eta biharamunetik hasita. Onuradunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta diruzainari jakinaraztea.

Hamargarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmenak sinatzeko.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDIZ0048-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)